

prest!



BERBETAN: **ASIER GONZALEZ MARTIN** YOLANDA GONZALEZEN NEBA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUALDEA ISOLAMENDUA GAINDITU NAHIAN** BARKUA: **BILBOTIK PERURA**

202-203-205-206-



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak
Helbidea
Telefonoa
E-posta
Kontu zenbakia (Iban)

prestarpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña		Iritzia	4
	Sebastian Jara Mella		Gurera etorriak	5
e	erreportajea Deustualdea isolamendua gainditu nahian <i>Koronabirusak eragindako osasun-larrialdiak munduko biztanleriaren laurdena etxera bidali du. Txinan lehen kasua jaso zenetik hiru hilabetera pairatu genituen lehen ondorio zuzenak Deustun. Jai Batzordeak jaiak bertan-behera uztea erabaki zuen orduan, konfinamendua ezarri baino hiru egun lehenago. Harrezkero, ikastetxeak, saltokiak, kirol-zentroak, tabernak edota udaltegiak itxi dituzte. Luze joko duela dirudi, eta datozen lerrootan deustuarrek konfinamenduaren lehen egunetan bizi izandakoa jaso dugu.</i>			6
	San Inazio eskola		Eskolak	10
	Paulo Zamarripiren Deustua		Behin batean	12
	Berbaizu 2020-2030: Itzulerako partida gainditu eta luzapenaren bila		Artikulua	14
b	berbetan ASIER GONZALEZ MARTINEKIN <i>40 urte pasa dira Emilio Hellin buru zuen eskuin muturreko talde batek Yolanda Gonzalez gazte deustuarra Madrilén erail zuenetik. Yolandaren horma-irudiari Deustuibarran egindako erasoak ez ditu lausotu oroimen eta aldarrikapen ekitaldiak. Urteurrenaren bueltan Asier Gonzalezekin egon gara, Yolandaren nebarekin, bere figuraren gaurkotasunaren inguruan berbetan.</i>			16
	Toldos Bilbao-Goyoaga (2002)		Irudiak berbetan	21
	ARTEA Gorreri Bisuala			24
	ELKARTASUNA Bilbotik Perura zubiak eraikitzen			
	PINTXODROMOA Kuskus krematsua martorri souffléarekin			
	KULTUR TXOTX Jon Mirena San Pedro eta Libe Diaz de Argandoña Agirre			



**barkua
bete
herba**

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekort Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Helene Sarazola, Iñigo Martinez Peña, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Iñigo Martínez Peña
Filosofia irakaslea

Ez zaitez galdu...

"Barkatu, nola heldu naiteke herriko plazara?, Non hartzen da Bilborako bidea?, Ba al dakizu non dagoen San Bartolome kalexka?..." Horrelako galderak gero eta gutxiago egiten eta entzuten ditugu. Norbaiti galdetu beharrean, pantailarekin harremanetan gaude, berak aginduko digu nondik abiatu GPSa dela-eta. Une oro 24 satellite daude lurrari begira eta, seinale baten bidez, darماغun mugikor-hargailuaren posizioa, abiadura eta norabidea identifikatzen dituzte.

Posizionatze globaleko sistema edo *Global Position System* horren erabilera Gerra Hotzean hasi zen, erabilera militarra zeukan; pertsonen eta gauzen posizioa kontrolatzeko guztiz aproposa. 2000. urteko maiatzean, berriz, Bill Clintonek, orduko Estatu Batuetako presidenteak, erabilera gizarteratzea eta komertzializatzeko aukera ematea erabaki zuen. Geroztik, gailu hori gure egunerokotasunean gero eta gehiago txertatu da, ia ezinbeste-

koa bihurtu arte. Edonora zuzenean joan gaitezke orain, bidean denbora galdu gabe: *time is money*. Zoria eta ustekabea gure existentziatik erabat alboratu nahi dugu, ibilbidea optimizatu eta bizitzaren kudeaketa digital eraginkorra egin.

Modu horretara, robot digitalaren esanak mekanikoki jarraitzen ditugu. Nor da orduan benetako robota? Julio Cortazarrek esaten zuen aspaldi: erloju bat oparitzen dizutenean, zu zura erlojuari oparitua. Erlojuak zu eramango zaitu eta ez alderantziz. Nik ez dut uste inoiz robotak pertsonak izango direnik, Siriren ahotsa baldin badute ere, baina pertsonak askotan ari gara roboten antzera.

Ados, agian apur bat esajeratzen nabil, eta gailu horrek bere abantailak dauzka. Noski. Askotan erabili izan dut ez galtzeko. Ez dakidana da bidean ere beste zeozer ez ote dudan galdu.



Helene Sarasola Isazelaia
Ikaslea



Irakaskuntza hobetu guran

Apokalipsi garaiotan beste berri lurrikaratsu batekin natorkizue. Bigarren Hezkuntzan irakasle gisa jarduteko Irakasteko Gaitasun Agiria (IGA, gaztelaniaz CAP izenez ezaguna) ez da derrigorrezkoa izango, momentuz. Notiziak hautsak harrotu ditu hainbat ikasleren eta irakasleren artean. Inguruko gazte asko entzun izan dut kekaka IGA graduondokoaz. Haien iritziz, masterrak ez die irakasle izateko behar diren funtzioei erantzuten, edukiak ez omen dira lagungarri gero irakasle aritzeko edo ez omen ditu ikasle aniztasuna kudeatzeko behar diren baliabideak eskaintzen.

Jaeneko eta Oviedoko bi irakaslek jaso dituzte ikerketa batean Bigarren Hezkuntzako graduondokoaren inguruko 33 irakasleren eta 40 ikasleren iritzia. Irakasleak irakaskuntzan jarduteko ezagutza transmititzeak duen garrantziaz jabetu behar dutela aipatzen du ikerketako hainbat gaztek, jendartearen erantzukizun handiko zeregina baitute. IGA graduondokoak ikasleen formakuntzari oso ekarpen txikia egiten diola azpimarratzen dute ikasle gehientsuenek. Nire inguruko gazte askok irakasle izan nahi du, baina, inork ez du Bigarren Hezkuntzako titulua egiteko motibazio handirik.

Sekulako eztabaida izan dugu unibertsitatean etikako irakasleak galdera bota digunean: "Zuetako askok egin nahi duzue lan Bigarren Hezkuntzan, etikoa al da insitutuko irakasle izateko irakasle titulurik behar ez izatea?". "Etikoa ez dena, masterrak duen prezioa ordaintzea da, jakinda ez diola inolako ezagutzarik eskaintzen egiten duenari", erantzun genuen askok. "Baina, medikuntzan edo ingeneritzan jarduteko antzerako prezioa dute masterrek, eta titulua behar den edo ez, ez da auzitan jartzen" jarraitu zuen irakasleak.

Nago gradu eta graduondo askotako formakuntza hobea dela, bai irakasleek duten prestakuntza eta bai ikasleek jasotzen duten ezagutza. Zoritarrez, ondo zainduta egon beharko lukeen irakaskuntza, gure etorkizuneko jendearen prestakuntza dena, oso bigarren mailakoa da. Irakasle oso prestatuek ume libreak, jakintsuak, zorionsuak, haien buruaren jabe direnak, kritikoak edota feministak prestatuko lituzkete. Ez ote genuke IGA graduondokoak halako jakintzetan eta eztabaidetan kokatu behar?



Sebastian Jara Mella

Jatorria: Txile

Bizitokia: Deustu

Lanbidea: Independentea



“Historia aldatzeko unea da”

Noiz etorri zinen Euskal Herri- ra?

2014an etorri nintzen lehen aldiz. 2017an bidai bat egin nuen: aurrena Italiara, gero Alemaniara, Frantziara eta azkenik Euskal Herri-
rrira, Oñatin bizi zen lagun bati Txileko gauza batzuk ematera. Aste batzuk hemen igaro ostean, Bartzelonara joatekoa nintzen, baina azkeneko momentuan atzera egin eta bertan geratu nintzen.

Zergatik Deustura?

Bilbora iristean Luzarra kaleko ostatuan egon nintzen eta bertan lana eman zidaten. Ikasturtean zehar ikasle-pisu moduan alokatzen dute, eta horrela igaro nuen lehen urtea. Lagunak egin nituen eta Deustuko herri izaera ezagutu nuen.

Zer da gehien gustatzen zaizu- na?

Oso arin egokitu nintzela. Jende oso jatorra eta solidarioa dago. Eguraldia eromena da, baina berdea, mendiak, hondartza... izugarri gustatzen zaizkit. Oso ondo nago hemen.

Zer egiten duzu hemen?

Janari beganoa prestatzen dut eta Arte Ederren Fakultatean saldu. Noizbehinka lantxo batzuk

ateratzen zaizkit eta horrela hila-
bete amaierara heltzen naiz. Nire buruarentzako lan egitea atsegin dut, ez enpresa batentzat. Denbora libre asko daukat eta ez dut zergarik ordaintzen.

Gustuko duzu hemen bizitzea?

Bai, seguru sentitzen naiz, eta auzoaren parte. Leku atsegina da, denetarik dago eta beti giro ona. Heldu nintzenetik bikain tratatu naute, lagunak ez naute inoiz bakarrik utzi. Munduaren beste puntan familia bat izatea bezala da.

Nola bizi dituzu hemendik Txile- ko azken protestak?

Oso gogorra izan da, hemendik ezer gutxi egin dezakedalako, egoeraren berri zabaltzeaz aparte. Lagun asko han daude, dena ematen, eta hemendik animoak eta indarrak bidaltzen dizkiet. Egoera oso zaila da, eta aspalditik dator. Hilabete amaierara ezin iristea, ikasteko kreditu bat eskatu behar izatea, espekulazioa, Estatuaren gehiegikeriak, errepresioa... Jendea nekatu da eta egoera normalizatzeari utzi dio.

Nolakoa da egoera egun?

Lasaia goa, baina manifestazioek aurrera jarraitzen dute. Konsti-

tuzio berria onartu edo atzera bota behar dute, eta herria zati-tuta dago. Gainera, faxistak talde biolentoetan antolatuta dira eta jendea jipoitzera ateratzen dira. Baina historia aldatzeko unea da eta txiletar guztientzako mundu hobe bat eraikitzekoa.

Sarri itzultzen zara?

Etorri nintzenetik ez naiz inoiz bueltatu. 2018an ama eta aita etorri ziren bisitan eta Gabonetan berriz itzuli dira, nire anaia-
rekin batera. Bisitei esker arinago egiten zait herri-mina. Hala ere laster itzuli behar naizela sentitzen dut, Txile ezagutzen amaitu eta familiarekin berriz elkartzeko.

Euskara ikasi duzu?

Pixkanaka saiatzen ari naiz. Lagun batzuek irakasten didate (eskerrak pazientzia duten!). Ecuador Etxeko euskara klaseetara ere joaten naiz, baina onartu behar dut ikasteko apur bat nagia naizela. Kultura batek bere hizkuntz propioa dauka eta errespetua erakutsi behar zaio. Ez daukat gaztelaniaz komunikatzeko zailtasunik, baina hemen bizi naizen bitartean euskara ikasten jarraituko dut.



DEUSTUALDEA ISOLAMENDUA GAINDITU NAHIAN

Koronabirusak eragindako osasun-larrialdiak munduko biztanleriaren laurdena etxera bidali du. Txinan lehen kasua jaso zenetik hiru hilabetera pairatu genituen lehen ondorio zuzenak Deustun. Jai Batzordeak jaiak bertan-behera uztea erabaki zuen orduan, konfinamendua ezarri baino hiru egun lehenago. Harrezkero, ikastetxeak, saltokiak, kirol-zentroak, tabernak edota udaltegiak itxi dituzte. Luze joko duela dirudi, eta datozen lerrootan deustuarrek konfinamenduaren lehen egunetan bizi izandakoa jaso dugu.

Testua eta argazkiak: PREST! aldizkaria

Martxoaren 12an Deustuko Jaiak ospatzeko prest zegoen auzoa. Txupina botatzeko bezpera zen eta, urtero lez, txosnak eta agertokiak bere lekuan zeuden, eskariak jasotzeko zain. Jai-programa ere banatuta zuten konpartsa-kideek, baina egun hartan Covid-19ren hedapenagatik, jaiak bertan-behera uztea erabaki zuen Jai Batzordeak, EAEko ikastetxeak eta unibertsitateak itxi ziren egun berean, hain zuzen. Erabaki zaila izan zen, Jai Batzordeak prestaketa lan handia zuelako eta instituzioek ez zutelako argibide zehatzik ematen. Esate baterako, EAEn ez zegoen derrigorrezko etxeratzerik eta alarma-egoera handik bi egunetara ezarri zuen Espainiako Gobernuak, martxoaren 14an.

Ondorioz, zor ekonomiko handiari egin beharko dio aurre Jai Batzordea, ordura arte muntatutako azpiegiturak 11.000 euroko

zuloa utzi baitio. Gaur-gaurkoz ez dute ordaintzeko modurik eta era batera edo bestera egoerari aurre egiteko konponbidea bilatzen ari dira. Bitartean, itxialdiak ez ditu deustuarrak kikildu, jai-espirituari eutsi diotelako. Sare-sozialak sutan egon dira aurreko urteetako argazki eta bideoekin eta, aurtengoak nolabait ospatu nahian, nork bere egongela edo balkoian Tomate Erreketa txikia egin zuten jaien amaiera irudikatuz.

Konfinamenduak ekarri duen egoera ikusita, jairik gabe geratzea ez da gertatu zitekeen okerre. Klase barik geratu dira ikasle eta irakasleak, kultur eta kirol ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira, telelana ezarri diete langile askori, lan erregulazio espedienteak beste hainbateri, eta familia asko eta asko diru-sarrera gabe geratu dira.



Lagun asko guztiz bakartuta geratu dira etxean, oinarritzko beharrak asetzeko modurik gabe, adibidez, buruko gaixotasunak dituztenak, mugikortasun-arazoak dituztenak, aniztasun-funtzionalekoak... Zaintza baliabiderik gabe geratu dira horietako asko, inoiz baino bakartuago.

Laguntza-sareak Deustualde osoan

Itxialdiaren ondorioak arintzeko asmoz, ha-
maika dinamika loratu dira alarma-egoera
ezarri zenetik, bakardadea eta isolamendua
gainditu nahi dituztenak: sare-sozialetako
erronkak, musika-emanaldiak eta karaokeak
balkoietan, osasun-langileen aldeko txaloal-
diak edota auzokideen arteko babes-sareak.
Euskal Herri osoan sortu dira eta Deustual-
dea ez da salbuespena izan, auzokideei
laguntzeko sareak antolatu direlako auzo
guztietan, hau da, San Inazio-Ibarrekolan-
da-Elorrietan, Arangoitin, Doneperiagan eta
Erriberan.

Asetzen dituzten beharrak askotarikoak
dira: edozein arrazoi medio, kalera atera
ezin diren bizilagunei errekaduak egiten
laguntzen diete, dibertsitate funtzionala
duten pertsonak edo adinekoak mugitzen
lagundu, bizilagunak entretenitzeko dina-
mikak sortu (telefonoz, online...), edota
egun hauetan hain erabilgarriak diren tek-
nologia berriak erabiltzen ikasteko laguntza
eskaini... Auzo batzuetan zauriak zaintzeko
eta tentsioa hartzeko prest dauden osasun

langileak ere badaude. Gainera, krisiak api-
rilaren 12ko 00:00ak arte luzatu berri den
alarma-egoerak baino gehiago iraungo due-
la jakitun, egoera zaurgarrian dauden langi-
leak laguntzeko tresnak eratzen hasiak dira,
berbarako, laneko gehiegikeriak eta kalerat-
zeak salatzen eta auzokide guztien artean
erantzuteko deiak zabaltzeko.

Kanpoan lasaitasuna nagusi

Egunotan, deustuar ugari harritu egin dira
pertsiana altxatzean kotxeen zaratak ent-
zun beharrean, txorien kantuak esnatu di-
tuela ohartu direnean. Jaiegunetan, batez
ere, deigarria izan da kaleko isiltasuna. Etxe
barruan, esan gabe dago, bestelakoa dela
egoera. Egun hauetan Deustu zeharkatu du-
gunok parkeak hesituta aurkitu ditugu, oso
lantegi gutxi ikusi ditugu zabalik eta janari-
saltokietan zein botiketan erosteko ilara luze
eta beldurgarriek atentzioa eman digute.

San Inazio eta Deustuko merkatuek or-
dutegia murriztu dute eskariak pilatu ahal
izateko. Derrigorrezko itxialdia ezarri au-
rreko astea zoramena izan zen Deustuko
merkatuko saltzaileen esanetan, baina egu-
nak igaro ahala egoera lasaituz joan omen
da. Martxoaren 18an ohiko jaiegun bezpera
batean baino jende gutxiago nabaritu dute
erosketak egiten. “Jendeak ez du ezer os-
patzeko, eta, gainera, ezin da elkartu bazka-
riak egiteko”, azaldu digute arrandegikoek.
Oro har, beharrezko segurtasun neurriak

“-----”



hartuta eta ordutegia murriztuta nahiko normal doa merkatuko eta gainerako saltokie-tako jarduna. Hori bai, merkatuan kontatu digutenaren arabera, ohiko bezero asko adinekoak dira eta, arrisku taldekoak izanda, egunotan euren seme-alabak dira erosketak egitera hurbiltzen direnak.

Gelditu ezin dutenak

Ahalik eta jende gehiena etxean eta seguru egon dadin, badira gelditu ezin diren langileak: erizainak, medikuak, zeladoreak, hornitzaileak, merkatu eta janari dendetako langileak, garraiolari eta gidariak, itxi ez dituzten enpresetako beharginak, baita garbitzaileak ere.

Atariak eta lantokiak inoiz baino hoberen garbitu eta desinfektatu behar diren honetan, garbitzaileek ezkutuko langileak izaten jarraitzen dute. Ramon y Cajal kalean, Juliarekin egin dugu topo, atari bat desin-

fektatzen ari zela. Enpresarekin pozik da-goela esan digu, lehen egunetik segurtasun neurriak abian jarri eta materiala eman zio-telako. Atari batetik bestera joateko eskuak garbitzeko xaboia eta eskularru berriak ditu, baina badaki Deustun lanean ari diren beste garbitzaile askori ez dizkietela baliabideak eman, eta enpresak ez dituela segurtasun neurriak errespetatzen.

Kale saltzaileak gogor kolpatu ditu krisialdiak, inolako diru-sarrera gabe utzi di-tuelako. Bilboko mantero senegaldarrek erresistentzia kaxa jarri dute martxan, alokairuak, hornidura eta mantenua ordaintzeko batetik, eta senideei laguntzeko beste-tik. Bizkaiko SOS Arrazakeriaren izenean dagoen kontu korrontea eman dute nahi eta ahal duenak ekarpena egin dezan (ES67 2095 0005 1838 3074 5829), kontzeptuan “Apoyo Mbolo” jarrita.


Bestalde, etxerik ez dutenen egoera age-rian geratu da egunotan, Etxean gelditu edo Ni etxean geratzen naiz kanpainenkin kontrajarrita. Bilboko Udalak martxoaren 13an aktibatu zuen larrialdi plana eta, on-dorioz, Eusko Jaurlaritzari eskaini zizkion bere baliabideak, tartean, kiroldegia. Re-kalde, Txurdinaga, Etxetxea, Bilbao Arena eta Deustuko kiroldegietan 350 pertsona ari dira konfinamendua igarotzen. Beharrezko baliabideak Udalak eta Bilboko hainbat elkartek koordinatzen dituzte, eta egunotan mantak, izarak eta oihalak biltzen ari dira etxez-etxe.

Martxoaren 24an Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak sare sozialetan bideo bat zabaldu

**EGIN
SALTO
EUSKARAREN
MUNDURA!**



Azkue
FUNDATZA



**LANTEGI
BERRIA**

daukagu prest zuretzat
Zatoz bisitan ikastetxearekin!

Geldetu hemen:
94 402 60 81 • info@euskararenetxea.eus
• Agoitz plaza 1 48015 Bilbao, Bizkaia

zuen udaltzaingoa kiroldegi hauetako batean indarrez sartu eta bertan konfinatuta zeuden gazteak identifikatzen hasi zela salatzeko.

Kirol taldeak etxetik lanean

Gainerako sektoreetan bezala, kirol ekitaldi guztiak ere bertan behera geratu dira. Deustuko Arraun Taldeko kirolariak etxean ari dira entrenatzen, eta arraun-pabiloia itxita dago. Federazioak momentuz bertan behera utzi ditu egun hauetako lehiaketa guztiak, eta ikusteke dago zer gertatuko den maiatza-ekainean hastekoa zen denboraldiarekin.

Futbolearen ere, antzeko ari dira. Espainiako Futbol Federazioak norgehiagoka guztiak suspenditu ditu momentuz, eta Ligarekin zer egin erabakitzen ari da. Gaur-gaurkoz lau aukera daude mahai gainean: txapelketa dagoen bezala utzi eta beheko zein goiko mailetara taldeen jaitsierak eta igoerak daudden postuekin egitea (kasu horretan Deustu beheko mailara jaitsiko litzateke), kanporaketak egitea, denboraldia galdutzat ematea eta hurrengo denboraldia zerotik hastea, edo maiatzean liga berrabiarazi eta geratzen

diren 10 partidua bost astetan egitea (asteazken eta igandetan jokatzu). Momentuz talde nagusiko jokalariei ez diete enplegu erregulazio espedienterik egingo eta kobratzen jarraituko dute.

Konfinamendua arintzeko bi erronka

Amaitzeko, etxeko egonaldia arintzeko Deustualdean sortutako bi dinamikaren berri eman nahi dizuegu. Alde batetik, Elorri Bertso Eskolak eta Deustuko Herriko Tabernak martxan jarritako Haba(n)f)erak bertso-katea. Bertsolari batek zortzi errima jartzen dizkio besteari eta honek 12 ordu izango ditu bertsoz erantzuteko, beste pertsona bat izendatuz. Bestetik, Deustuko jaietan ospatu ohi den bertsio gaua nola edo hala mantentzeko dinamika abiatu du Sani Rock elkar-teak. Nahi duen orori abesti baten bertsio bat bideoz grabatu eta sanirockelkatea@gmail.com helbidera bidaltzeko deia luzatu diote. Pixkanaka bertsio guztiak sare sozialera igotzen ari dira.

Doneperiaga: deustuauzolanean@gmail.com / 692 57 37 93 - 688 69 09 03

Ibarrekolanda-San Inazio-Elorrieta: errondokoe@gmail.com / 656 78 43 55 - 673 38 28 78

Arangoiti: arangoitiauzoa@gmail.com / 609 17 11 49

Deustuko Erribera: erriberaauzoa@gmail.com / 655 71 65 26

Gizarte-larrialdietarako Udal Zerbitzua

94 470 14 60 / urgencia@bilbao.eus



HEMEN BIZI, HEMEN EROSI... DENOK IRABAZI!!

Denon artean, zaindu dezagun gure auzoa



LH 2. MAILAKO IKASLEOK LIBURUTEGIRA JOAN GARA

EBazen behin, Euskal Herriko hiri polit batean... Lehen Hezkuntzako 2. mailako bi talde. Langileak, azkarrak, alaiak eta liburu irakurle amorratuak ziren. Egun batean auzoko liburutegira joatea erabaki zuten.

Testua eta argazkiak
San Inazio eskola



Horrela pentsatu eta hala egin: bigarren mailako bi taldeak San Inazioko Liburutegira joan ginen pasaden otsailaren 28an. Bisita honen helburua liburutegia zer den eta nola funtzionatzen duen ikastea zen. Bi taldetan banatu ginen eta bi orduko txandak egin genituen bertara hurbiltzeko.

Liburutegiko atean Inmak bertako arduradunak, harrera egin zigun. Lehenik eta behin, Inmak hirugarren adineko

irakurketa gelara eraman gintuen. Bertan galdetu zigun ea zer genekien liburutegiari buruz eta ea bagenekien zer dagoen liburutegi batean. Erantzunak askotarikoak izan ziren. Batzuk behin edo behin familiarekin ipuin kontalaria ikustera joan zirela esan zuten; beste batzuk esan zuten aldizkariak, DVDak eta komikiak zeudela apaletan; beste batzuk txartela behar sartzeko...

Inmak azaldu zigun liburutegi honetako

txartela edukitzeak abantaila on bat zeukala. Bilboko beste zenbait liburutegietara ere sartzeko aukera ematen du, Bidebarrietako eta Alhondigako liburutegietan sartzeko aukera, hain zuzen.

Gero, beste gela batean, Inmak liburu batean Bikingoen istoriotxo bat aurkitu zuen. Bertan, bikingoen bizitza nolakoa zen ikasi genuen, haien errito, asmakizun eta jainkoei buruz entzuten egon ginen adi-adi. Bikingoz janzteko informazioa bilatu genuen liburu, ipuin eta komikietan. Lan handia egin genuen guztiok batera!

Amaitzeko, bi taldetan banatu ginen: alde batetik liburuak, komikiak eta ipuinak aztertzeko eta beste alde batetik, mozzorro maskara bat margozteko. Bikingoen alfabeto errunikoa ere erabili genuen bakoitzaren izena idazten saiatzeko.

Primeran egon ginen San Inazioko liburutegian. Bueltatuko gara!

Eta hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta ager dadila San Inazioko Liburutegian.






PAULO ZAMARRIPAREN DEUSTUA

Ipuin labur batek eman digu atal honetako mamia. Paulo Zamarripak idatzitako kontakizunetako bat Deustuari lotuta dago. Umorea dakar eta, bide batez, gure herriaren gaineko jakingarriren bat edo beste.

Testua:

Hektor Ortega




Paulo Zamarripa (1877-1950), Laredon jaiotako sondikarra, abadea eta idazlea izan zen. Gazterik hasi zen euskaraz idazten, are abadetu aurretik ere. Esate baterako, Bilboko Euskalzale astekari euskalduneari (1897-1899) kolaboratu zuen, hoguei urteak bete berritan, "Izkirimiriak" ataleko arduradun. Izkirimiriak, zirtoak dira, txistek alegia, barregura eragiteko asmoz kontatzen diren istorio laburrak. Espainiako gobernuak astekaria itxiarazi ostean, beste hamaika argitalpenetan plazaratu zituen bere olerkiak eta kontakizun labur eta umoretsuak. Izan ere, Zamarripak irribarrea eragin gura izan zuen bere ipuinokin, beti herri hizkeratik abiatuta.

Narrazio horietatik batzuk liburutan kaleratu zituen. 1930ean, esate baterako, "Kili Kili" argi-

taratu zuen, bere "bigarren liburu barre-zalea", bigarrenena 1926an "Zaparradak eta" plazaratuta zegoelako. Bertan azaldu zen "Morroi baten ipuiña", 2013an Seve Callejak "Bilbo inguruko ipuinak" antologian jasotakoa. Narrazioaren ardatza Deustuko nekazari baten eta bere baserri-rra morroi ekarritako Arratiako gaztearen arteko harremana da.

Bere laburrean, ipuinak gure herriaren gaineko jakingarri gutxi dakartza, baina badago zer edo zer. Adibidez, badakigu morroia noiz heldu zen Arratitik Deustura: San Pedro egunaren bezperan. Hortik tiraka, Deustuko jai-ohitura baten berri eman zuen: "Urrango egunean, jakiña ba!, San Pedro-eguna zan ta, egun ori Deustun konbidedu-eguna izaten da ta". Eta biharamu-



na ekarriko zuelakoan etorri zen atzera herrira, baserrian laguntasun handia eman behar ziona. Baina, sarritan gertatzen den bezala, koipe asko eta urdai gutxi. Alegia, gazte hark aita zeukan langile.

Deustua eta Txorierrri

Bide batez, bitxikeria ekarriko dugu. Zamarrripak Txorierriko herriak zerrendatu zituenean ("Manual del vascófilo" liburuan, 1913), bederatzi hauek aitatu zituen: Deustua, Erandio, Leioa, Laukiz, Gatika, Derio, Zamudio eta Sondika. Gaur egun ez dugu horrela ikusten, jakina. Mungialdeko Laukiz eta Gatika alde batera utzita, Leioa eta, batez ere, Deustu inork gutxi sartuko lituzke gaur egun Txorierrin. Hala ere, ez da zorakeria. Izan ere, ez dugu ahaztu behar Deustua Erdi Aroan Sondikatik bereizita eratu zela elizate moduan. Beraz, bazegoen arrazoi historikoak Deustua eta Sondika lotzeko eta, ildo horri segika, Deustua Txorierrin sartzeko.

nean, "San Pedro bigarren dala ta bigarren konbidedu-eguna izaten da".

Konbidedu eguna edo gonbidatu eguna, herriko edo auzoko jaietan gonbidatuak etxean hartzeko eguna izaten zen. Normalean, senideak etortzen ziren, izeko-osabak, lehengusuak... Gonbidatuak herritik kanpokoak izaten ziren, jakina. Etxera etortzen ziren eta, hala etxekoekin nola kanpotik etorritakoekin, lagun asko batu ohi zen mahaiaren bueltan.

Osterantzean, kontakizun umoretsu laburra da "Morroi baten ipuiña". Deustuar baserritarra Arratiara joan zen morroi bila eta bertan morrosko eder bat hartu zuen etxerako. Morroi bikai-

Zamarrripak horrela egin zuen eta, hortaz, Txorierrikotzat jotzen dituen ohiturak, kantzak eta esaerak, beharbada. Deustukoak ere baziren. Adibidez, "Firi-Firi" liburuan (1935) jaso zuen "Portugalete / vino clarete / edango neuke / basutxu bete" koplatoa. Edo gaur egun ere ezaguna den "Arratiko zekorra, txikerra baina gogorra".

Oharra: testu honetan aitatu ditugun liburuak interneten daude eskuragarri. Adibidez, hemen: klasikoak.armiarma.eus



Kalderapeko

euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BERBAIZU 2020-2030: ITZULERAKO PARTIDA GAINDITU ETA LUZAPENAREN BILA

Otsailaren 29an goizean, 20 berbaizukide batu ginen Bidarten bi helbururekin: Plan Estrategikoan lehentasunak ezartzea eta ekintzak garatzea. Egitekoak ondo bete ondoren, hirugarrena etorri zitzaigun: barne-antolaketa, diskurtsoa eta oinarri-ideologikoak jorratzeko luzapena.

Jon Intxaurreaga

Euskaraldia, Koronabirus eta Athleticen finalaz gain, urte berezia da berez 2020a 366 egun dituelako. Berbaizu Euskara Elkartean egun estra aprobetxatu genuen Bidarten go-goeta prozesuan aurrerapausoak emateko. Plan Estrategikoa sakon lantzeko, berrantolatzeko eta lehentasunak ezartzeko aukera izan genuen Bidarten. Berbaizuren norabide berria gida ditzaketen bi neurri aipatzekotan, Müllerenea eta aisialdia eta kirolean eragitea aipatuko nituzke. Gaur egun, proiektua garatu, moldatu eta birpentsatuko dugu eta, epe-luzera, alternatibak proposatu ziren: be-healdera mugitzea edota leku handiago bat alokatzea. Bestalde, aisialdi eta kirolean badago zer hobetu Deustun, D ereduko askok kirola eta aisialdia erdaraz egiten dutelako, entrenatzaileak euskal-hiztunak badira ere (!), eta kezkatuta dauden gurasoak aktibatu nahi ditugu taldeetan eragin dezaten.

Barne-antolaketa, diskurtsoa eta oinarri-ideologikoak aparte

Plan Estrategikoa ordenatzean, eguneko lehen erabakia hartu genuen bertaratutakoek: hirugarren bilera antolatzea barne-antolaketaz eta diskurtsoaz berba egiteko. Talde-eragileak, ordea, ez du denbora galdu eta prestatzen hasi da: barne-antolaketa, oinarri-ideologikoak eta diskurtsoa eguneratzeko atalak bereizi ditu. Hori ez ezik, Euskaraldiaren lantaldea indartzea lehentasun moduan ezarri du. 40 lagun lotu nahi ditu eta hainbat aurkezpen sektorial zein orokor antolatuko dituzte. Beti ere, gu geu bezala, Koronabirusak markatutako doinu eta neurrian.

Berbaizuren Plan Estrategikoaren bost lerro-estrategikoak:

1. Euskararen Jabekuntza
2. Euskararen Erabilera
3. Euskararen Elikadura
4. Euskararen Motibazioa, Sentsibilizazioa eta Lan-Ideologikoa
5. Barne-antolaketa

Aukeratutako neurriak:

1. Euskararen motibazioa, sentsibilizazioa eta lan-ideologikoa: elkartearen diskurtsoa landu eta lan-ideologikoa egin

2. Euskararen elikadura: trebakuntza umee-kin, gazte antolatuekin dinamikak egin eta Egunean Behin aprobetxatuz, komertzioekin harremanak sendotu sarien bidez. Horretarako, elkargune naturala beharko genuke, dela leku bat, dela jarduerak antolatzea (ikas-taroak, txangoak etab...).

3. Euskararen erabilera: aisialdia eta kirolean euskararen presentzia bermatzea eta federazioei legeak betearaztea. Horretarako, guraso talde bat aktibatu nahi dugu eta dagozkien tresnak eman. Eurocopa aukera ona izan daiteke.

4. Kulturgintza: Müllerenea proiektua garatu, moldatu eta berriz pentsatu eta Deustun Euskal Jaia antolatu (lantalde zabala funtsezkoa litzateke).

Testua: Jon
Intxaurreaga

'FEMINISMOAK BARROTEAK GAINDITUZ' ERAKUSKETA LASTER IKUSGAI



Bost urte pasa dira Itziar Moreno preso politikoaren artelanak lehen aldiz erakusketa batean ikusgai egon zirenetik. San Inazio-Ibarrekolandako Kultur Merkatura lagun, senide eta auzokide mordoa bertaratu ziren Itziarren Pintzelkada askeak ezagutzeko. Ordutik aurrera, bere lan artistikoa handituz joan da, beste kide batzuen artelanekin batera ibiltari bihurtu eta Euskal Herri osoan zehar bidaiatu da. Hurrengo geldialdia, ordea, hurbil izango dugu, Errondoko Auzo Etxean, hain zuzen.

Testua: Errondoko
Auzo Etxea
Margolanak: Itziar
Moreno

Derrigorrezko berrogeialdiak ekintza kultural kolektibo guztiak atzeratu edo bertan behera utzi ditu. Apirilaren 4an irekiko zuten Itziar Morenoren erakusketa San Inazio-Ibarrekolandako Errondoko Auzo Etxean, eta bi hilabetez egongo zen ikusgai. Inaugurazioa eta erakusketa bera atzeratu egin dira, eta oraindik data berririk ez dagoen arren, San Inazioko artistak proposatzen dizkigun gaien inguruan hausnartzeko aukera baliatu nahi dugu.

Hiru hilabetez prestatu dituzte Itziarren senideek, lagunek eta auzoko eragileek erakusketa eta honen irekiera jaia. Inaugurazio egunean gai honetan adituak eta arituak diren emakumeak, preso-ohiak eta artistak hurbilduko dira Errondoko Auzo Etxera. Hasteko, Joana Regeiro, Olatz Dañobeitia, Estibaliz de Miguel, Maider Galardi eta Ekhiñe Eizagirre izango dira mahai-inguruan solasean eta haien esperientziak, ikerketak eta gogoetak plazaratuko dituzte. Ondoren, hizlariek plazaratutako mintzagaiak bere artelanekin elkarriketan jarriko ditu Itziar Morenok, Renne-seko kartzelatik bidalitako audio baten bidez. Amaitzeko, antzezlan hunkigarri baten lehen emanaldia ikusteko aukera izango da, Nor gara gu? antzerki laborategiaren eskutik.

Emakumea, kartzela eta sormena ardatz

Itziarren ekoizpen artistikoa *artibismoaren* barne kokatu behar dugu, zapalkuntza eta bortxakeria salatzeke ikuslea probokatu eta haren kontzientzian eragitea helburua duelako. Bere artelanen ardatzak emakumeak eta horiek pairatzen dituzten indarkeriak izan ohi dira. Lan gehienek, nahiz eta egoera latzak zuzen aurkezten dituzten, ez dute ikuspegi negatibo bat aurkezteko xederik; kontrara, irtenbide posible bat aurkezten dute: feminismoa, edozein harresi haustearen ideia, jendarteko arazoei erantzuteko deia, elkartasuna...

Hartara, erakusketa honen helburua ez da Itziarren artelanen inguruan hitz egitea; baizik eta salatzen duten errealitateari ahotsa jarri eta hausnartzea. Hori horrela, inaugurazio egunean espazio eroso eta abegitsua sortuko dute Errondoko Auzo Etxean, parte hartzeraren animatzen direnek askatasun osoz euren bi- zipenak, gogoetak eta kezak adierazi ahal izateko. Erakusketaren data berria Errondoko Auzo Etxearen sare sozialen bidez jakinaraziko dugu.

berbetan

ASIER GONZALEZ MARTINEkin

1980an eskuin muturreko talde batek eraildako Yolanda Gonzalezen neba

“Justizia lortzeko borroka

40 urte pasa dira Emilio Hellin buru zuen eskuin muturreko talde batek Yolanda Gonzalez gazte deustuarra Madrilén erail zuenetik. Yolandaren horma-irudiari Deustuibarran egindako erasoak ez ditu lausotu oroimen eta aldarrikapen ekitaldiak. Urteurrenaren bueltan Asier Gonzalezekin egon gara, Yolandaren nebarekin, bere figuraren gaurkotasunaren inguruan berbetan.



urteak izan dira azken 40 urteak”

Zure arreba Yolanda gogoratzen duen horma-irudi berria erasotu dute margotu eta gutxira. Zelan definituko zenuke gertatua?

Erasoa izan da, ideologia faxista duen talde batek burutua. Intolerantzia ekintza bezala katalogatuko nuke. Atzean dagoen ideologiak berdin dit. Berdin dit eskuin muturretik datorren edo beste ideologia batetik. Finean, intolerantzia ekintza bat izan da. Ezer ez da zilegia. Biktima baten oroimenaren aldeko erasoa oso larria da. Izan ere, oroimenerako ekintzak eta bitartekoak oso garrantzitsuak dira gertatutakoa ez errepikatzeko, denok gogoan izateko, baita gazteek ere, zer gertatu zen ezagutzeko.

Zelan sentitu zara eta zelan sentitu da familia erasoaren aurrean?

Madriilen Yoldandaren izena daraman plaza batean hainbat eraso egin dituzte azken urteotan. Nolabait, ohituta gaude horrelakoetara. Prestatuta gaude, nahiz eta sufritu gertatuarekin. Baina lehen aldiz Deustuko Erriberan gertatzean, aitortu behar dut, hotzikara apur bat sentitu nuela. Harritu egin ninduen. Gero, jendearen erantzuna ikustean, atsekabea guztiz joan zitzaidan.

Zelan erantzun behar da horrelako erasoaren aurrean?

Irnotasunez, hitza bera anbiguo samarra den arren. Irnotasun hori nola adierazi?

Badira hainbat modu. Erakundeen eremutik kanpo, Erriberako auzotarrek egin duten moduan ekitea bikain iruditzen zait, elkarretaratzea eginez. Beste batzuek euren ekimenez erabaki dute pintada zuriz estaltzea. Erasoei erantzuteko edozein ekimen irainari aurre egitea da. Bestetik, erakundeen eremutik erantzunen bat baletor, bada, ondo. Erakundeek argi izan behar dute euren jarrera biktimen oroimenari eraso egiten zaionean, erantzuna auzotarren ekimenaren esku gera ez dadin beti.

Zelan erantzun du Bilboko Udalak?

Interesa agertu dute Udaleko hainbat ordezkari. Jakinarazi digute, eta ideia bikaina iruditu zait, Yolandaren horma-irudiaren eredua prestatuko dutela inoiz antzekorik gertatzen bada bizkor erantzun eta berregiteko. Hori adibide egokia da. Arlo instituzionalak, kasu honetan, harritu egin nau onerako, horma-irudia ez baita Udalaren ekimenez sortu inondik inora.

Yolanda duela 40 urte hil zuten. Noiz berpiztu da berekiko interesa?

2013an hasi ginen aldaketa nabarmena nabaritzen, El País egunkariak Yolandaren hiltzailearen bizitza ezkutuari buruzko informazioa kaleratu zuenetik. Oihartzun handia izan zuen komunikabideetan eta gizartean. Bere oroimena defendatzeko

“2013an hasi ginen aldaketa nabarmena nabaritzen”

▷ ▷ SAKONEAN

“Erriberan oso presente dago”

Erriberako plazatxoari Yolanda Gonzalez izena ipintzea, zer izan zen zuretzat?

Oso berezia izan zen. Ekimena onartu zen udal-batzarrean egon ginen. Oso oroitzapen polita dut.

Jabetzen zara Deustuibarran Yolanda Gonzalez ikur bihurtu dela?

Bai, Deustuko Erriberan oso presente dago. Ezinezkoa da bestela pentsatzea. Oso garrantzitsua da auzotarrentzat. Hori oso nabari dut.

beharra sentitu zuten batzuk eta komunikabideek kasua berreskuratzeko premia. Yolanda presente egoteak ekimen bandalikoak egiten dituztenentzat ere presente egotea dakar.

Komunikabideen presioak lagundu dizue?

Bai, tarteka lagundu digu, zalantzarik gabe. Emilio Hellinen espainiaratze agindua, esaterako, komunikabideen presio-gatik onartu zuen Espainiako Gobernuak. Eta 2013an gauza bera gertatu zen. Gobernuak komunikabideen presioa zuen gain-gaanean. Erantzun beharrean aurkitu zen, eta senideok bilerara deitu gintuzten. Baina handik hilabete batzuetara arreta guztia galdu zuen Yolandaren kasuak.

Justizia eta egia lortu ditu zure familiak?

BSarri pentsatzen dut euren senideei gertatutakoaz ezer ez dakiten pertsonengan. Jabetzen naiz, gurea baino kasu askoz dramatikoagoak egon badirela. Gure kasuan, Yolandaren hiltzaile materialek epaiketa izan zuten eta kartzelan bukatu zuten, nahiz eta zigorra osorik ez bete. Egile intelektualei dagokienean, nolabaiteko maila batera iritsi zen ikerketa, Fuerza Nuevako kide batzuegana. Hortaz, gertatuaren egia bat badugu. Baina ondotxo dakigu, egia osoa ez dugula ezagutzen. Emilio Hellinek



hainbatetan azaldu zuen ez zuela atzean zeuden pertsona guztien berri emango. Baina ezin izan dugu haratago jo.

Erakundeen zer-nolako babesa jaso duzue?

Espainiako Gobernuak ez du ezer egin ez egia ez familiaren justizia eskaerari erantzuteko. Bere ekimenez ez du pausorik eman. Gure borroka beti izan da erakundeen aurkakoa, justizia eskatzeko. Eus-kadi mailan, justizia, egia eta erreparazio arloan hainbat aurrerapen izan da. Zentzu horretan, lekutan dago Espainia.

Bigarren mailako biktima sentitu zarete?

Bai, gurasoak batik bat. 1987an Emilio Hellinek espetxeko baimen bat baliatuz Paraguaia ospa egin zuenean, gurasoak Valladolidera joan ziren salaketa jartzera. Oso txarto pasatu zuten, horrela azaldu zidan amak berak. Bigarren mailako biktima sentiarazi zituzten, eta hori baino gehiago, eurek kriminalak balira bezala.

Erreparazioa iritsi zaie zure gurasoei?

Berandu iritsi zitzaien. 2015etik aurrera hasi ziren erreparazio ekimen gehientsuenak eta ordurako nire ama ez zen erreabilitateaz jabetzen. Beraz, gurasoentzat ez, gainerako senideontzat bai, neba-arrebontzat bai.

Politikarien presioa sentitu duzu?

Ez gara biktimen elkarteekin ez talde politikoekin lotu, inoiz ez. Hori dela eta, inork ez gaitu erabili. Nigana hurbildu dira talderen baten sartzeko gonbidapena eginez, baina ez dut horrelakorik onartu. Atea itxita izan dugu, joko horretan sartuz gero erabil zaitzaketelako.

“Yolandaren borroka bizirik dirau”, diote bera ezagutu zutenek. Zertan nabari duzu hori?

Bere borrokarako arrazoiak, 40 urte beranduago, gure artean daude: feminismoa, klase borroka edo orain gizarte borroka esaten zaiona, independentzia... oraindik ere bizirik dauden erronkak dira. Eta, noski, faxismoaren aurkako borroka gaur egun, bai hemen bai beste lurralde bat-

zuetan, oso bizirik dago. Inoiz baino gehiago, harrigarria dirudien arren. Espainiako Parlamentuan horrela pentsatzen dutenek ordezkaritza izugarria dute, Yolanda erail zuten garaian baino handiagoa.

Denborak zauriak sendatzen ditu?

Gorrotorik ez dugu izan etxean, eta hori gurasoek emandako hezkuntzari esker izan da. Gure amak indarkeriarik gabeko familiarrean hezi gaitu, eta ez dugu horrelako sentipenik izan. Injustizia eta ezintasun sentipena bai, baina gorrotorik ez dugu izan.

Emilio Hellinek zer sentipen eragiten dizu?

Nazka eragiten dit, baina ez hiltzaile bat izate hutsagatik, den pertsonaia izateagatik baizik. Inoiz ez da damutu. Egin beharrekoa egin zuela esan izan du. Antidemokrata, hiltzailea eta terrorista da printzipioz, bete-betean.

Zelan gogoratzen duzu zure arreba Yolanda?

Nik sei urte nituen hil zutenean. Pertsona oso aktiboa zela gogoratzen dut, dinamikoa, beti etxetik sartu eta irten. Telefonoz hizketan, bere bilerei buruz... Hamasei urterekin adin horrekin beste inork ez zuen ardura eta jarrera zuen. Etxean ez genuen giro politikorik eta, hortaz, etxetik kanpo piztu zitzaion jakin-mina. Harrigarria zen bere heldutasuna eta segurtasuna.

Trantsizio garaiko krimenik gogorrenetakoa da Yolandaren hilketa. Nola nahi duzu besteok Yolanda gogoratzea?

Azkenaldian egiten den moduan. Bere omenez sortu diren aitortza eta maitasun ekimenak sinestezinak dira, esperotakoa gainditzen dute. Benetan politak dira. Eskuzabaltasun keinu handia da jendearena, hainbat arazo izanik, kalera atera eta Yolandaren figura aldarrikatzea. Guzti horrek txundituta nauka.

Azken 40 urteak nola laburbilduko zenituzke?

Borroka urteak izan dira, justizia lortzeko borroka urteak. Horixe izan da 40 urtetako gure zeregin etengabea.

“Gurasoak bigarren mailako biktima sentitu dira”

Deustuko jaiak bertan behera

Deustuko jaietarako aste bete baino gutxiago falta zen, txosnak muntatu-ta zeuden, eszenatokia bere lekuan, eskariak eginda... eta bete-betean harrapatu gintuen Covid -19aren krisi honek. Egoera ikusita, pena handiz hartu zuen Jai Batzordeak Deustuko jaiak bertan behera uztearen erabakia. Azken orduko aldaketa honek, zor ekonomiko handiak utzi dizkio batzordeari eta neurriak pentsatzen ari dira konpontzeko. Bitartean, deustuarrak ez dira kikildu, eta modu batean edo bestean jaietako espirituari eutsi diote. Sare sozialak sutan egon dira aurreko urteetako argazki eta bideoekin, eta hori gutxi balitz, jaiei amaiera emateko tomate erreketak txikia ospatu zen, balkoietara irten eta giroa musikaz alaituz. Deustuko Jai Batzordeak guztien babesa eta parte-hartzea eskertzen du, eta aurrerago iragarriko ditu asmo berriak. Gora Deustuko Jaiak!



Gizon bat kartzelan emakume bat erasotzearren

Martxo hasieran, 33 urteko gizon bat atxilotu dute Deustun emakume bati eraso egin diola akusatuta. Balizko erasotzailea Morgan kaleko CrossFit gimnasioko langilea zen eta biktimari masaje bat eskaintzeko aitzakiaz, bertan bakarrik zeudela aprobetxatu zuen eraso egiteko. Emakumeak gertatutakoa Ertzaintzari salatu zion eta polizia gizona atxilotu zuen. Epaileak kartzelaldia ezarri dio, eraso-sexuala egotzita. Pare Gazte Talde Feministak eraso salatu du sare-sozialen bidez. Argitaratutako oharrean azpimarratu dute "ez dela erasorik egongo erantzunik gabe eta ez garesti isilik geratuko". Hilaren 12an deitu zuten elkarretaratzea bertan-behera geratu zen osasun-neurriengatik.



Amianto-hautsa Erriberan

Zawp eta La Haceria pabiloietako sabaiak desmontatzean amianto-hautsa zabaldu izana salatu dute Deustuko Erriberako auzokideek. Aldez aurretik abisurik jaso gabe eta konfinamendu garaian auzokideen osasuna arriskuan jarri dela azpimarratu dute sare sozialetan, izan ere, ohar bakarra kalean kokatu dute, obra gunean. "Giroan hauts arraro bat somatu dugulako konturatu gara obraz", esan dute. "Koronabirusetik babesteko berrogeialdi batean eta arnasa hartzeko bide bakarra leihoak zabaltzea denean, inoizkorik ondoen itxi behar ditugu", gaineratu dute haserre. Arduradun bila, Udalarekin hitz egiten saiatu arren, ez dute erantzunik jaso eta erantzukizunak exijitu dituzte.



Alarma egoeraren aurrean babes-sareak sortu dituzte Deustualdean

Koronabirusak eragindako itxialdiaren ondorioei aurre egiteko hainbat laguntza-sare eratu dira Euskal Herri osoan. Deustualdea ez da salbuespena eta hemen ere antolatu dira kalera atera ezin diren edota arrisku-taldekoak direlakoan komeni ez zaien bizilagunei errekaduak egin eta etxera eramateko. Isolamendu egoeraren aurrean bakarrik edo larrituta sentitzen diren pertsonen edo lanean krisiaren aitzakiaz gehiegikeriak jasaten dituztenei laguntzeko tresnak ere sortzen ari dira. Laguntzailea edo hartzailea izan nahi baduzu, gorde helbide eta telefono hauek eta harremanetan jarri:

Deustun: deustuauzolanean@gmail.com/ 692 57 37 93- 688 69 09 03

Ibarrekolanda- San Inazio: errondokoae@gmail.com/ 656 78 43 55- 673 38 28 78

Arangoiti: arangoitiauzoa@gmail.com/ 609 17 11 49

Deustuko Erribera: erriberaauzoa@gmail.com/ 655 71 65 26



Urtea: 2002

Txema Luzuriaga

Toldos Bilbao-Goyoaga

Deustuko Erriberan zegoen Toldos Bilbao-Goyoaga enpresaren argazkia. 1833. urtean eraiki zuten, eta 2000. urteko abenduaren 31an itxi. Orube horretan itsas errota bat zegoen, Bizkaian XVIII. mende amaieran eraiki zituzten hamarretako bat, hain zuzen. Argazkian errotaren ur-sarera ikus daiteke, uraren arrasean dagoen zuloa. 1833. urtean belategi bat eraiki zuten Lemonauria etxaldea zegoen lekuan. 1840an Goyoaga familiak Toldos Bilbao-Goyoaga ireki zuen. Eraikina 2005ean bota zuten, baina oraindik auzoaren sarreran ikus daiteke 1912ko azulejo panel bat.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

ALA
TATTOO STUDIO
TAS
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagram: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tlfnoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel: 656 410 475
alonsoper@outlook.es

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Yoki Berri
Taberna
Good vibes!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Florería
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
Android App Google play Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez! aek

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKJA: 855

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneke, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Zure egitekoen zerrendan, zein da egingo duzun lehena?



Jone Martin
Deustu - Bartzelona

Azkenaldian albo batera izan ditudan lagunekin hitz egin eta gure bizitzaren gorabeherak partekatu.



Jone Gartzia
Ibarrekolanda

Eguneroko bat egingo dut egun hauetan ikusten ditudan bitxikeria eta gehiegikeriak apuntatzeko, hilabeteak pasa ahala normalizatzen ditugun jokaerak detektatzeko.



Ane Uribe
San Inazio

Nire gazteluan (etxean) egiteko gauza original eta ezberdinak pentsatzea, normalean egiten ez ditudanak. Adibidez, aurpegia margoztu eta leihora ateratzea!



Jon Mujika
San Inazio

Oposaketak ikasten hasi, musika egin, entzun eta irakurri.



Olatz Alonso
Ibarrekolanda

Nire logela eta armairua txukundu eta denbora musika berria entzuteko aprobetxatu.



Mikel Uribe
San Inazio – Donosti

Ez dut zerrendarik egin, ahal den heinean orain arte bezala bizitzen saiatuko naiz. Jendea erotu egin da, jasotzen dugun informazio guztia kritikatu gabe irensten du. Zerrenda bat egitekotan bi ideia azpimarratuko nituzke: arazo errealaz arduratzea (pertsonak babestea) eta teknologiaz ez fidatzea. Egun hauetan teknologiak lagunduko gaitu, baina pantailaren aurrean denbora asko pasatzeak jarrera nartzisistetara eraman gaitzake.



>> ARTEA

ZALOA IPIÑA: “ARTE GARAIKIDEAK ZOR HANDIA DU HIZKUNTZA GUTXITUEKIN”

Publikoa hizkuntza aniztasunaren gainean kontzientziaztea helburu, ‘Gorreri Bisuala’ izeneko erakusketa zabaldu du Zaloa Ipiñak Euskal Museoan. Hainbat instalazioen bitartez, hizkuntza gutxitu eta gutxietsien inguruko ikerketa bisuala plazaratzen du artista deustuarrak, apirilaren 27ra arte ikusgai izango den erakusketan. Liburu bat ere argitaratu berri du gaiaren inguruan; baina, nolanahi ere, ikerketa sakon baten lehen zatia baino ez dela argitu digu, eta proiektuak hazten jarraituko duela.

Testua eta argazkiak: Jone Gartzia

Euskara gutxiespen egoeran egoteko arrazoi historikoak aztertu ditu Zaloa Ipiñak, artista bisualaren perspektibatik. Gaiaren inguruan asko irakurri eta ikertu du eta lehen ondorioak plazaratzeko erakusketa muntatu du Euskal Museoan. Bertan hizkuntza aniztasunaren problematika arte garaikidearen bitartez landu du, alderdi historikoari zein soziolinguistikoari helduta.

Bi urte daramatza artista deustuarrak gaiaren inguruan buru-belarri ikertzen, eta aitortu digunaren arabera, zailena izan da lan hori guztia bisualki proiektu artistiko batera bideratzea. Zailtasunak zailtasun, otsailaren 20an inauguratu zuen erakusketa Euskal Museoan. Lehen zatia apirilaren 27ra arte egongo da ikusgai, luzatzeko aukerarekin, baina ez da hor amaituko. Izan ere, oraindik hizkuntza aniztasunaren inguruan asko du esateko Ipiñak. Dagoeneko erakus-

ketaren bigarren partean ari da lanean, datorren ikasturtean aurkezteko asmoarekin. Besteak beste, hizkuntzaren aniztasuna ekologiaren ikuspuntutik eta hildako hizkuntzen memoria landuko ditu aurrerantzean.

Sei pieza eta liburu bat

Sei piezek osatzen dute *Gorreri Bisuala* erakusketa, horietatik bost instalazioak. Argazkiak, eskulturak, bideoak eta inpresio digitalak erabili ditu hizkuntzei ezarritako debekuak, zigorrak, aurreiritziak eta mugak aztertzeko. *Anillo escolar* izeneko instalazioan (nahita gaztelaniaz izendatutakoa) euskaren erabilera zigortzeko metodo hau zazpi argazkiren bitartez azaltzen du. Horien bitartez, terrore linguistikoa, deshistoriazioa, amnesia kolektiboa, genozidio kulturala eta kolonialismo mentala gisako terminoak mahai gainean jartzen ditu.

Etxean arrotz izenekoan, oster, historian atzera egin eta hizkuntza menderatu eta menderatzaileen rola aztertu ditu. 1349. urtetik gaur egun arte euskararen aurka egindako lege, dekretu eta debekuak irakur daitezke lan honetan. “Zoritxarrez eguneratuz joango den pieza da, Espainia eta Frantziako estatuen aldetik erasoak ez baitira eten”, diosku egileak.

Unibertsaltasunari ere heldu dio Zaloa Ipiñak *Gorreri Bisuala* erakusketan. Bere ustez, unibertsala eta internazionala izatea uniformetasunarekin nahasten da sarri, eta horrek hizkuntza gutxituak arte garaikidetik baztertu izana ekarri du. Ipiñaren aburuz, ordea, “hizkuntza guztiek balio dute artea egiteko, baita artelaren gaiaren ardatza izateko ere”. Hari horri tira eginez, erakusketaren azken piezak Miguel Torgaren hitzak ekartzen ditu gogora: “To-



http:// **sarekada**

KONFINAMENDUA ETXEAN EUSKARAZ IGAROTZEKO GOMENDIO BATZUK



Berria aretoa

www.berria.eus/berriatb/berria-aretoa

Kultur sortzaileentzat leiho bat zabaldu du Berriak, koronabirusaren ondorioz kultur agenda bertan behera geratu ostean: Berria Aretoa. Egutero diziplina ugaritako kultur sortzaileen emanaldiak argitaratzen dituzte: besteak beste, musikariak, aktoreak eta ipuin kontalaria.



Etxean goxo euskaraz

www.uema.eus

UEMAk, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, konfinamentua euskaraz igarotzeko baliabideen zerrenda argitaratu du. Etxeko egonaldia arinago egiteko euskarazko doako hainbat baliabide bildu dituzte, haurrentzat zein helduentzat. Besteak beste, jolasak, ikus-entzunezkoak, ipuinak, musika, bideo-jokoak, eleberrak etab. aurki daitezke eskuliburuan.



eLiburutegia

www.eliburutegia.euskadi.eus

Osasun krisiak aurrez aurreko izapide gehienak eten ditu, tartean, Euskadiko liburutegi digitalera sartzeko pasahitza eskuratzekoa. Alarma egoerak dirauen bitartean liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus helbidearen bidez egin ahalko da tramitea. Guztira 20.000 liburu digital eta 15.000 film baino gehiago eskura daitezke. bideo-jokoak, eleberrak etab. aurki daitezke esku-



Auskerie

twitter.com/auskerie

Bilboko jatorrizko euskararen adierak jasotzeko sortutako Twitter kontua da @auskerie. Etxeko egonaldi luze honetan gure euskararen jatorria, ezaugarriak, bitxikeriak eta adierak ezagutzeko aukera hobeezina dugu.



BERRIA Aretoa

Saio Guztiak

01 | Jon Basaguren
2020-03-16

02 | Mikel Martinez (Mari Errauskin)
2020-03-17

03 | Anari
2020-03-17

04 | Ramoni eta Loitzune
2020-03-18

kian tokikoa, hormarik gabe, hori da unibertsa”.

Erakusketarekin batera, izen bereko liburu bat ere argitaratu du. Bertan, proiektua osatu bitartean ezagututako hizkuntzalari eta historialariek propio idatzitako testuak jasotzen ditu, erakusketako piezek plazaratzen dituzten gaien inguruan. Liburua ez da erakusketaren katalogo bat, beste pieza bat baizik. Autoekoitzitako lana izanik, ez da ohiko liburu-dendetan egongo eskuragarri, baina Euskal Museoa bertan edo artistarekin berarekin harremanetan jarritz gero, eskuratu ahal izango da.

BILBOTIK PERURA ZUBIAK ERAIKITZEN

Gobernuz Kanpoko Erakundea da Bilbotik Perura, 2010ean Trujillora joandako gazte talde batek sortua. Hasierako asmoa hango proiektu batzuk diruz laguntzea zen. Azkenaldian sentsibilizazioan ari dira buru-belarri, auzoko beste talde batzuekin batera.

Testua: PREST!

Argazkiak: Bilbotik Perura

Duela hamar urte San Inazioko gazte talde bat Trujillora (Peru) joan zen, hango proiektu batzuetan laguntzera. Auzora bueltatu zirenean esperientzia horri jarraipena emateko zerbait egin behar zutela erabaki zuten. Hala, lanean hasi ziren. Lehenengo urteetan Trujillon ezagututako proiektuak diruz laguntzeko ekintzak egiten hasi ziren, baina denborarekin sentsibilizazioa euren tresna garrantzitsuena zela konturatu ziren. “Gure jarrera eta ingurukoena eraldatzea funtsezkoa da mundu justu bat lortzeko”, azaldu digute. Egun, antolatzen dituzten jarduerak gehienak sentsibilizaziora bideratuta daude, Trujillon bultzatzen dituzten proiektuen finantzaketa ahaztu gabe.

Emakumeen Defentsa Bulegoa da Perun laguntzen duten proiektu nagusia, Alto Trujillon kokatzen dena. Profesional, boluntario eta ikasleek osatutako taldea da, instituzioen laguntzarik ez duena, eta indarkeria matxista jasaten edo jasaten duten emakumeei zerbitzu legala, psikologikoa eta soziala ematen dizkie, dohainik. Alto Trujillo Peruko La Libertad departamentuan dagoen auzogune bat da, Trujillo hirian. 75.000 pertsona inguru bizi dira, gehienak pobrezia larrian. Emakumeen egoera oraindik eta latzagoa da elkarteko kideen hitzetan: indarkeria matxista tasa altuak eta baldintza sozioekonomiko eta kultural gordinagoak jasaten dituzte.

Emakumeen Defentsa Bulegoan 10 emakume profesionalak egiten dute lan, eta unibertsitateko ikasleak ere badituzte praktikan. Gainera, auzoetan egiten diren ekintzen arduradunak boluntarioz osatutako taldeko emakumeak dira. 2010ean, proiektua sortu zenean, bulego bakarra ireki zuten eta 40 kasu artatu zituzten. Orain, hiru bulego dituzte Alto Trujillon, eta laugarrena irekitzeko lanean ari dira. Iaz 800 kasu baino gehiago izan zituzten.

Zonaldean ahaldundutze prozesuak laguntzen dituzte, “emakumeak matxismorik gabe bizi ahal izateko”. San Inazioko boluntarioek Defentsa Bulegoaren mantenua laguntzen dute eta bertatik sort-



zen diren ekimenak babesten dituzte. “Elkarrekikotasunean eta errespetuan oinarritutako harremana dugu, emakumeak beren garapenaren protagonistak izan daitezen”, azaldu digute.

Zubiak eraikitzen

Ekintza guztiak San Inazioan egiten dituzte, inguruko jendea sensibilizatzeari funtsezkoa deritzotelako. Horretarako, pentsamendu kritikorako eta eztabaidarako espazioak sortzen dituzte, esaterako, zineforumak, herrialde pobretuetako esperientzien hitzaldiak, pertsona migratuekin tailerrak, ponentziak...

Aurten ipuin lehiaketa bat ere antolatu dute, Adeco Elkarrearekin batera. Urrian El Salvadorreko gizarte zerbitzuko emakume bat eta Alto Trujilloko Emakumeen Defentsa Bulegoko kide bat gonbidatu zituzten euren esperientziak kontatzera. Aukera baliatu eta auzoko hainbat sektoreekin lan egitea erabaki zuten, emakumeen eskubideen etengabeko urraketen inguruan hausnartzeko. Gaia sakonago lantzeko ipuin lehiaketa bat antolatzea bururatu zitzairen. Pentsatu eta egin. Dagoeneko jaso dituzte aurkeztutako proposamenak, eta osasun-krisia igarotakoan argitara emango di-

tuzte, Bilboko kaleetan banatuko duten liburu batean.

Horrez gain, urtean bi azoka egiten dituzte Defentsa Bulegorako dirua biltzeko. Gabonetan azoka solidarioa antolatzen dute San Inazioko elizaren enparantzan, eta maiatzean bigarren eskuko liburuazoka egiten dute kalean. Nolanahi ere, dirua biltzeko egiten duten ekintza nagusia Salestarren antzokian prestatzen duten jaialdia izan ohi da. Diziiplina askotako artistak gonbidatzen dituzte, jendea artearen bitartez sensibilizatzeko, eta jasotako diru guztia Bulegoarentzat bideratzen dute.

“Elkarrekin hazi eta ikasi”

Azkenaldian, auzoko eragile eta taldeekin harremanak estut-

zen ari dira, sarean lan egitea ezinbestekotzat jotzen baitute. “Aldaketa sozialak nahi baditugu, aliatuak izatea funtsezkoa da, bakarrik ez garelako urrunera iritsiko”, diote. Bilobak Talde Feministarekin, Errondoko Auzo Etxearekin, Adecorekin edota Atecorekin lan egin eta espazioak konpartitzen dituzte, “elkarrekin hazteko eta ikasteko”. Peruko errealitatea gurera nola ekartzen duten galdetuta, haien jarduera guztien atzean hango emakumeen esperientziak aurkituko ditugula argitu digute. “Pertsonon eraldaketa guztion artean eraikitzen dugu, horregatik Perutik jasotzen ditugun irakaspenak hemen islatzen dira. Urrun gaude, baina ez gara horren ezberdinak eta hamaika gauza ditugu ikasteko haiengan-dik, baita haiek gugandik ere.”





ZER GERTATU OTE ZITZAION ANA GARCIAI?

martxoaren 28tik
apirilaren 19ra

www.pabellón6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Kuskus krematsua martorri souffléarekin

Zailtasun maila: Gutxi

Egiteko denbora: Asko daukagu

Prezioa: Merkea

Berezitasuna: Sorpresa dauka barruan

Konfinamendu garaia ezin aproposagoa da sukaldari sena atera eta gure trebeziez gozatzeko. Horregatik, hilabete honetako PREST! aldizkarian etxean erraz egiteko pintxo bat proposatzen dizuegu. Piztu suak, jantzi amantala eta hasi praktikatzen, berrogeialdia amaitutakoan zure ingurukoak harritzeko!



Pepote, Edu eta Santi.



Zelan egin?

1. Lehenengo eta behin, barazki guztiak txikituko ditugu eta zartagin batean oliba-olioa, kanela, martorri pixka bat eta kuminoarekin zureztatuko ditugu. Honen erdia aparte utziko dugu gerorako eta kuskusa gehituko dugu zartaginean.
2. Lapiko txiki batean 160 ml ur ipiniko dugu berotzen. Irakiten dagoenean, kuskua dagoen zartaginera botako dugu.
3. Beste aldetik, arrautzen zuringoa eta gorringoa bananduko ditugu. Gorringoak plater batean ipini eta ordu bat izozkailuan utziko ditugu. Bol batean zuringoak eta martorria irabiatuko ditugu irabiagailuarekin apar potolo bat lortu arte.
4. Geroago, labeko bandeja batean burdinezko lau uztai jarriko ditugu eta kuskusaren erdia barruan sartuko dugu. Gainean gorringo izoztuak jarriko ditugu eta gainerako kuskusarekin estaliko ditugu. Lehen aparte utzi ditugun barazkiak gainean jarriko ditugu.
5. Gero, zuringo apar geruza potolo bat ipiniko dugu kuskusaren gainean.
6. Amaitzeko, labea 180° -tan dagoela bandeja sartuko dugu 10 minutuz.
7. Platerretan jarri eta uztaiak kenduko ditugu. Erditik zatitzean gorringoa agertuko da, kuskusarekin nahasteko.
8. Badago prest. Osasuna eta askatasuna!

OSAGAIK

*Azenario bat
Tipula erdi bat
Bi berakatz ale
Piper berde bat
160 gramo kuskus
4 arrautza
2 martorri zati
Kanela
Kuminoa
Oliba-olioa
Gatza*

**ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO**

Prest?

BIDALI BILBOKOALDIZKARIAK@GMAIL.COM HELBIDERA. ON EGIN!



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JON MIRENA SAN PEDRO
Irakurle irregularra

STOCK 13

Adituek diotenez, ez ei da larrutan egiten Euskal Herrian. Zernahi gisaz, ukaezina da Inkisizioak gure arbasoak erretzearekin batera, zango zein besoetan sokak lotu, eta bizkarrezurrean gurutze bana zurkaiztu zigula, bilakatu nahi gintuen txotxongiloa ondo gobernatzeko. Gure maiteen errautsak eredu, ederki ezarri zizkiguten sexualitate arrotz baten parametroak, gure gorputzetan abitu, sotanak josiz.

Harrezkero, tente, harro gabiltza -seriosak omen gara euskaldunok! Eta etxeko loge-lan giltzapetu genuen 'eginbeharrekoa', atean *do no disturb eta ora pro nobis* irrarririk.

Eta hara non datorren Edorta Jimenez, ezizenez Omar Nabarro, euskaldunon erotika-ren baso-mortuan gu pikarraitzeko gertu. *Stock 13* postpornoan arauak hankaz gortuz, euskal literaturan ments dugun gaiari ekinez. Liburu ez-normatiboa, euskarari, irudiei, hartu-eman, narrutaldien kontakizunei dagokienez. Aske murgiltzen da idazlea bolaluma dantzaraziz ponte-igelez mukuru den herrian matxino, abertzale zintzo -*dei gratia*- askorendako be, deseroso. Liburuko azalean bere zakil ez-tentearen erretratua, arkeriatik at gizon bat bere sexualitateaz mintzo, bero eta ausart. Irudiak gogora dakarkit duela ez asko beste urdaibaitar baten eszenatoki gaineko biluzketak gure baitako Lancre'tar Pierre zantarra esnarazi zuela, bazterrak harrotuz. Nolatan ez irudikatu Mirande Aiphasorho maitea barrezka?

Lanpernak pikuak mangolinoak okaranak. Segidarik merezi duen testigantza baliotsua, ekarpen biziotsua. Su gabarik ez da kerik. Ez da Inkisizioarena irazeki behar dugun sua, Edorta.

Doinua: Haizeak bidali du



**LIBE DIAZ DE ARGANDOÑA
AGIRRE**

HELDUKO DA EGUNA

Oraingo egoera
behar dut aipatu
lagunekin kalean
ezin gara batu
ta Deustu jairik gabe
ezin da geratu
ahal dena egingo dugu
eta atzeratu

Egunak daramatzat
hartu gabe haizea
horregatik ahaztu zait
zer den ibiltzea
nik nahi dudana bakarra
da hau amaitzea
ta etxetik irtezeko
eguna heltzea

2020ko OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA

KUSI ETA KASI

(FAMILIAK EUSKARAZ GUTUEN)

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezko da aurretik izena ematea www.ikusietaikasi.eus gunean aurkituko duzuen izena-emateko fitxa betez.

IZENA EMATEKO EPEA:
URTARRILAREN 13TIK 26RA

LAGUN
ARTEAN

8-10
urte

4-8
urte

euskaltzaleen
topagunea

B
Bilbao

Bilbon euskaraz

B
Bilbao

HI(ZKI)BRID^oAK LITERATURAREN ETA AH^oZKOTASUNAREN ARTEKO MUTAZI^oAK DIRA.
LETRAK, S^oINUAK, BERTS^oAK ETA IRUDI^oAK ERALDATZEN DITUZTEN EKITALDI^oAK.
EMAITZA LITERATURA MUTANTEAK DIRA, ZENTZU ZABALENEAN.

HI(ZKI) BRI DOAK

Literatura
mutanteak

Otsailak 27 ^{DOAN}
Euskararen Etxean
19:30ean
BUZTINEZKO
ETORKIZUNA

Itxaro Borda irakurketan,
Ibon RG musikan.

Martxoak 25 ^{DOAN}
Euskararen Etxean
20:30ean
MUGA

Anfetamiña Xabier Montoiaren
lehen liburuan oinarritutako eta
Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak
argitaratutako egitasmoa.

Apirilak 23 ^{DOAN}
Euskararen Etxean
19:30ean
BERTSO SAIO
LITERARIOA

Mari Luz Estebanek kantuan
jarriko ditu Miren Amuriza eta
Maialen Lujanbio.

Maiatzak 15 ^{DOAN}
Euskararen Etxean
19:30ean
HABI^oAK

Anariren lan homonimoan
oinarritutako arte erakusketa
kolektiboa. Anari taldeak *Habiak*
diskoa joko du zuzenean.

Sarrera: gonbidetan bidez egingo da.

Maiatzak 28 ^{DOAN}
Euskararen Etxean
19:30ean
ORAINMENEAN

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa.
bertsolaritzaren genealogia
feminista.



Euskararen Etxea
Agoitz Plaza 1 • 48015 Bilbo
Metroa: San Ignazio (Lekeitio irteera)
www.euskararenetxea.eus

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK

